

Urdaira: “Jendea badabil sagardotegian”

Sagardo sektorea egoera larrian da Covid-19ak eragindako krisiaren ondorioz. “2020ko martxotik 2021eko otsailera arte 18 milioi euro inguruko galerak izan ditu sektoreak”, Euskal Sagardoak aditzera eman duenez. “Batetik, sagardotegi denboraldia iaz erdiz erdi moztu zelako eta aurtengoa murrizketekin eta martxan oraintxe jarriko delako; eta bestetik, ostalaritza geldirik izanda sagardo salmentak jaitsiera izan duelako”. Aldi berean, egoera berrira egokitu eta aurrera egiteko indarrez dago sektorea. “Erabakiak taldean hartu eta proposamen eta proiektu berriak martxan jarrita”, Euskal Sagardoa jatorri deiturako ordezkariak aditzera eman dutenez.

Usurbilen zabalik dauden sagardotegiekin jarri gara ha-



“Neurri guztiak betetzen saiatzen ari gara, ahalik eta zerbitzurik onena emateko”, Urdairakoek esan digutenez.

URDAIRA SAGARDOTEGIA

“Pitxerretan eskaintzen dugu sagardoa, eta talde txikitan mahaian jarrita egoten dira bezeroak, neurriek hala eskatuta”

rremanetan. Oraingoz hauek dira NOAUA!ren deia atentidu-

denak. Urdaira Sagardotegian esate baterako, lanean jo eta su ari dira. Denboraldia aurrera doa eta neurri berrietara egokitu behar izan dute.

NOAUA! Nola ari zarete aurre egiten maiz aldatzen diren neurriei?

Urdaira Sagardotegia: Ahal du-

gun moduan, gauzak iristen diren heinean erantzuna ematen ari gara. Aldaketa asko ari dira izaten azken aldiak eta horietan moldatu behar.

Herritarrek hurbiltzen jarraitzen al dute urtero moduan?

Bai, neurri guztiak betetzen saiatzen ari gara ahalik eta zerbitzurik onena emateko eta jendea badabil sagardotegian. Aforroaren neurriak kontuan izaten ditugu eta gainontzeko neurriak ere betez zerbitzua eskaintzen ari gara. Lehengo konturik ez da zentzu horretan, baina tira.

Txotxera joaterik ez orain. Nola ari zarete moldatzen zentzu horretan?

Pitxerretan eskaintzen dugu sagardoa, eta talde txikitan mahaian jarrita egoten dira bezeroak, neurriek hala eskatuta.